

Egoitzak xehatu, bada lastima,
haurtxoen zintzurak josi berunez.
Herio zauririk, baina, nehun ez:
gorputza desegin, piztu arima.

Sosaren aldeko abertzaleak,
harroxo erdaraz, eho euskara.
Picaso urratu: ez da Gernika.

79



GERNIKA 50 (N. BASTERRETXEA)

ALFONSO IRIGOIEN

ZUHAITZEZKO LIBERTATEA
UPARRANDIK BILBORA
GERNIKA

ZUHAITZEZKO LIBERTATEA

Euskal Herriko hiri libertatezko,
hire babes azpian baikinen biltzen,
triskantza hartan hainbat, hainbat hil zen,
ondamendira ziren semerik asko.

Picasso-k ere guztik ez du bipiltzen
jasan gendun izua, zezen ta erpa.
Ez ailekigu, harren, berriro gerta
sarraskiaren latza. Lehen trankil zen

gure Herria tente, Ez bedi barka
kaltezko den neurrian biztu zen sua.
Dugula euskaldunok guztiok arta,

itzarrikan dugula geure zentzua,
Gernikako zuhaitza Europan den
subiranoki zetro zoriontsua.

Gorri eta zuriak gudu berdean.
Durundua: baunba! Oihartzun gorra.
Umea ni txikerra, mutil koskorra,
Upopeko etxean haran gordean.

Badatoz hor gurera, begira horra!
Bilboraino naiz heldu, han tunel beltza,
gosea ta beldurra, ogirik eza,
abioien runrruna, adar gogorra.

Seniderik ez zen hil, Gernikan hotsa,
bizirikan egonik konta daiteke:
heriotzez hiria, eroen putza.

Bizturikako sua, ondorikan ke,
alferreko ilunez pisu astuna,
sarraskia kalean, *total para qué!*

GERNIKA

Huri bat dago Bizkaian,
zauri bat dauka sustraian,
metraillaz bere matraillan
egina suzko garaian.

Alfonso Irigoien




GERNIKA 50 (N. BASTERRETXEA)

harrihitza harrihitza harrihitza harrihitza harrihitza harrihitza
herria herria herria herria herria herria herria herria herria
har-hitza/har-hitza/har-hitza/har-hitza/har-hitza/har-hitza/
haritza/haritza/haritza/haritza/haritza/haritza/

rra eta erroetan hitza

g	a	e	m	n	d	b	b	a	a	d
e	r	r	o	a	i	i	a	l	l	a
r	b	r	z	h	o	z	i	f	f	b
n	o	o	t	i	t	i	n	e	e	i
i	t	u	o	e	t	e	t	r	l	
k	a	i			z			r	t	
a	r	k			a			i	z	
k	i				bizi-hitza			k	a	
o					bizi-hitza					
					bizi-hitza					

J. M. Irigoien Aranberri



GERNIKA 30 (N. BASTERRETXIA)

JOXE MARI ITURRALDE

ITXASOA BOST MINUTUTAN IKUSI NUEN
(Gernikarantz begira)


Itxaso zabal, lerdan hartan
Hiru urtetako umetxo nintzen
Harkaitzpetik
Bera higigaitz mendetan
Ni kexu, haur, dardarti.
Eta oroitzapenak oro
Pisutsu
Gainetik.

Itxaso zabal, lerdan hartan
Untzitxoan arrastoa bilatzen nuen
Arraiekin
Gal nezakeen burua, memoria begietan
Malko lausoak; euri antzeko bat zen, sybilino,
Harentzat fereka eme, enetzat min
Eta oroipen meheak
Pisutsu
Gainetik.

Geldi, geldi!
Itxaso anker, lerdan
Ez naiz bat eginen zurekin
Oraindik
Aurreraxeago
Errautsekin eta arrats gorriskarekin, hemen
Harkaitzpean

Pirata hordituen kofrez, neskato birjina irentsien
 Odolarekin, zu zaren hori
 Horizontearen atzetikan zaude gorderik,
 Ezkutu,
 Dragoi krudel, infinito mozorrozturik,
 Banator eta,
 Amorante leial, eternal, jeloskor,
 Zureganaino
 Auka eskergea itsaskor, begiberde
 Liparxeago.

Eta oroimen bat,
 Urtetako,
 Itxasoko partetik.



GERNIKAKO BONBAKETAREN 50.
 URTEURRENERAKO MONUMENTU PROIEKTUA

GERNIKA 50 (N. BASTERRETXE)


HAURRAK IZUTZEKO SEASKA KANTA
(Herri imajinario batetan jasoa)

Esna esna txuntxulun berde
etzan kuttun egin lorik
aita guria ifernuan dun
Zori gaiztuek harturik
aita guria ifernuan dun
zorigaiztuak harturik
esna esna txuntxulun berde
etzan kuttun egin lorik.

Esna esna txuntxulun berde
etzan kuttun egin lorik
aita guria abiatu dun
Asteleheneko perira
aita guria abiatu dun
astelaneke perira
esna esna txuntxulun berde
etzan kuttun egin lorik.

Esna esna txuntxulun berde
etzan kuttun egin lorik
aita guria urruti dun ta
Arieriok pa eginik
aita guria urruti dun ta
Heriok hara eginik
esna esna txuntxulun berde
etzan kuttun egin lorik.

J. Iñaki Lasa



AKER-BELTZ

GERNIKA 50 (N. BASTERRETXA)

ANDONI LEKUONA

GERNIKA SUTAN

GERNIKA SUTAN

Donu bretoia

1

Ez da Gernikan
negarra baizikan
—Herria sutan—
Egazkiñak askotan
bonbaz dute josi,
jendea igesi,
—Herria sutan—.

2

Nazi doixtarrak
eta "francotarrak"
—Herria sutan—
Arratsaldez bostetan
dena dute erre,
errukirik gabe,
—Herria sutan—.

3

Su eta garrak,
inperuko-indarrak,
—Herria sutan—
Gernika illunpetan
digute estali,
bizia itzali,
—Herria sutan—.

4

Bonba txistua
Eriotz gaistua,
—Herria sutan—
Etxeko ateetan
indarrez da sartu,
bihotzak urratu,
—Herria sutan—.

5

Emazte, aurrak,
ta hauen negarrak,
—Herria sutan—
oiñate-odoletan
zoraturik dabiltz,
karraxi ta antsiz,
—Herria sutan—.

6

Gizon, abere,
ferian han daude,
—Herria sutan—
Hauetxen bizkarretan
lertu dute bonba,
justizia non da!
—Herria sutan—.

Franco zitalak
egitnik ahalak,
—Herria sutan—
Gorriak gezurretan
zituen salatu,
lotsa denak galdu!
—Herria sutan—.

Pablo Picasso,
minbera da oso,
—Herria sutan—
Gernikaren penetan
indarra du hartu,
triskantza margoztu,
—Herria sutan—.

Urruti lehen
oraingoz Madriden,
—Herria sutan—
Prado-ko saloietan
jarri dute, horra!
bigarren zigorra,
—Herria sutan—.

Hor, herriz-herri
dabil penagarri
—Herria sutan—
Arrotz-atzaparretan
oialak ikara,
betor Gernikara!
—Herria sutan—.


Pistu bihotzak
eta esperantzak,
—Herria sutan—
Esna gaiten benetan
euskaldun guztiak
zahar ta gaztiak
—Herria sutan—.

Euskadi bakar,
hor dabil su ta gar,
—Herria sutan—
Arbolaren oiñetan
baturik gabiltzan,
zutik iraun dezan,
—Herria sutan—.

Andoni Lekuona

Edan txanpan kopa bat, maite, orain fotografiei itzaloiha-
lak kendu dizkie ta, lurraren bularrean irauli ziren zoro-izarrek,
pluf!, burbuilek gaur, oraindino lausotzen dituzte bihotzak eta.
Oroitean kulunkatzen diren ipurtargi beilegiak dira, geure kopan
gaur. Eskuan duzun edontzia, urruneko urradura baten ezagutu-
riko kalizaren ordezkari, astitsu izan daitela dizdizka zure begi-
radaren balkoian, dirdari izan daitela gerizari bere noiznahiko
nonahiko tenpluaren sustraia bihurtu zienen begirada beregabe-
tuetan. Zoro-izar galduak, burdinezko kriskitin sukartsuek, purrus-
tilen oihartzun kilikorra gaur, ernaldur dezatela bular ezagun
hortan geroa, hortxe eragin bakea uso zuritan merke.

Miren Agur Meabe



INTXIXU

GERNIKA 50 (IN. BASTERRETXEA)

OROIMEN GARRATZA (Gernikari euskal seme batek)

*Herriak usaina
gazi ta baserrea,
gizonaren batsak
odolaren kea...*

Gau hotza, aldi larria,
(enararik ez han),
norbaiten laztan gaitzak
tenazak bailiran,
(mila galdera gaizto
barrenetan dantzan),
zazpi zezen beltz dabiltz
haurrak *hozka* nahian...

Egun batez Gernikan
sugarra ta bala
(sugea ere!) farrez
harrosko altxa zan,
semeek afariz zuten
polbora plateran...
Nola? polbora? Bai, bai
polbora, alajainan!

Zer gertatu da hemen,
zer gerta gurean,
gizon-andreak horra
har gisa lurrean,
goiek sugea dute
gure etxeen gainean,
semeek *sua* jaten, ah,
ze atsekabeen!

Gernikak dolorea
(zigorra ta ironia),
amorrugorri baten
arnas egosia,
Pikasoren pinturan
ikus tragedia,
zango-izterren artean
zutik garraisia...

Metalen erasoaz
zeruan far gorri,
suzko euri garratza
gizonok zergatik,
obus krudel-mozkorrak
dabiltza gertutik,
zeruan *su* denean
nolatan guk euri...?

Horra, balak uxarka
gorputzen *ohean*,
aterpe-etxerik gabe
gaude bilutsean,
—“arrats honetan ase
odolez gaitean”
fazist beltzek diote
gozamen betean...

*Gizonaren batsak
odolaren kea...*

Tubo haserren hautsa
gizonetan *mailu*
Junker -en farra dute
haur gurek otordu
(vanpiro hoién zaborra
nork, nork, hustu digu?),
soinean odolak kee,
gaitz, samin amorrugorri...

Abioiak jiraka
(sugarrezko euri),
sapelatsak bailiran
mozkor zazpi ontzi,
balak odol-aparrez
guretzat opari,
ah, herri honen gaitza
zein den errukarri...!

Suaren *zurritada*
osoro gazia,
lehendiko *su* lotia
biraoz jeikita,
(txingarrak nondik datoz,
nondik hain jauzika?),
plomuzko farra kopan,
yadanik aski da!

*Herriak usaina
gazi ta haserrea...*

Hegazti beltz-zantarrek
su gaiztoa irauliz,
etxe, eliz, soin, kaleak
hautsita yadanik
(zorigaitzean zeinek
errukia guri?),
arnasa bera ere
su, *su*, zaigu itzuli!

Mila sugar-maluta
zilar koloretan,
plomuak algara du
(zerriak!) soinetan,
ez dakigu oraindik
sua zergatik dan,
zeruko zigor honek
herioa gudan.

Zeruetan lainoa
odolaren keaz,
usain latza nahastuta
gorputzen ohean,
buru ta izter *bautsiak*
lurrean daude etzan,
(berri honi labana
zeinek dio eman?)


*Gizonaren hatsak
odolaren kea...*

Pozoia edan dute
milak eta milak,
gerrate honen zorna
ontzian handia,
—“fazist urde, mozkorrek
hemendik habia,
alferrik zabiltzate,
herri hau ez da hila!!!”

Oih, herri goi-saindua
(foruen aterpe),
haritzaren adarrak
sendo eta berde,
Euskal Herri nerea,
egon, egon, erne,
libertatea duzu
gerraren ondore...!


*Herriak usaina
gazi ta baserrea,
gizonaren hatsak
odolaren kea...*

Luis Maria Mujika



AMALAU-ZANKO.

GERNIKA 50 (N. BASTERRETXEA)



ORNAS-UALAMA

Lari Maria Mujika

SABIN MUNIATEGI ASTORKIA

ASTELENDAR OITURAPEAN
GERNIKAKO TRISKANTZA GOGORATUZ

ASTELENDAR OITURAPEAN

Gernika, astelendar oituropean,
betiko lez, prest zegon erriétako
ikerlariak bere senean artzeko;
prest udábarri egutaro onean
bazetozalako bideak betean,
dendari ta tabernarien pozerako.

Eguerdiz gora, arratsalderatzean,
Gernika bizi-ro pilpildu zanean
bazkal orduetako sartu-urtenean,
ardandegiak ta jatetxeak betez
erletegi durundi baten antzean,
biziak ots zegin, ango kale artez.

Gitxien usteriko azerikeriz
doistar arrano baltzak agertu ziran;
lenengo bat, taldeka gero, etorriz
etenbako eraso izugarrian,
basatikeri aundiena sortaraziz
Jorrail egun ogeitaseigarrenean.

Joan-etorritzko zeregin baltzean...
iA, zan, a, lerkazko eriotz zaparrada
jausi zana an ziranen bizkarrera,
bonbazko ta balazko metrallapean!
iA, zan, a egazkiñezko danborrada
burutu zana Gernikáren ganean!

Etxeak beera zetoanugarretan
jausitako ormakaz ta, zatarkeriz
edozein alderdi, kale bazterretan
bizien urtenbideak galeraziz;
ondamendizko illerri biurtu zan
ezindurazko aiene ta karraxiz.

Azkatasun osoz goitik ebiltzala
doistar egapeko berein demoniño,
eguerdi ostetik ija gaberaño...
iBai arratsalde odolgarri, luzea,
makur, urratuz Gernikaren magala
ta, barra-barra ereñez naigabea!

Illak ta biziak an uri barruan
atxillo gelditu ziran, eziñean;
etxebizitzak izandako Gernikan,
erriopetuak garrazkiro, itsuan...
iAn gelditu ziran su ta ke artean,
Jorrailleko astelen odoltsu artan!

Alako erreketeta, sugar aurrean
aritzan izan zan lekuko, aritza,
zeru bareko izar dirdirapean...
iA, zan, gaugune ozpin, oñaze baltza,
Bizkai osoko ikusle begipean
gainditu zanean alako sugartza!

GERNIKA'KO TRISKANTZA GOGORATUZ (1937-4-26'an)

Zorigaiztoko egun odoltsu zital artan,
Udabarria gorakadan zetorrenean
orlegi ta eder, izadiari bizi antza
emonaz, zeru argiaren laztandurapean
gertatu zan alako basatiar triskantza.

Baserritarrak goiztar, beren lur-lanetara
(goldaketak, ereintzak ta, abar, egitera)
Emaztekiak be, goiz, ortuariakaz azokara,
asto zamatuekaz arin ta bizkor, Gernikara,
eroandakoa saldu ta zerbait crostera.

Astelena zan, gernikar egunik gurena,
"peri" usaiñez mundutza bat dakarrena;
baserritar ta salerosketariak Gernika
kaleak betean, euskerazko "zu" ta "nika",
alaitzen eben egun buruzuri maiteena.

Nork esan eriotza zegokeanik ain bertan
doistar arrano baltzen egope maltzurretan?
Nork esan Gernika erreko zanik orduan,
triskantua izango zala milla zatitan
bonbaketa baten bidez ta itsu-itsuan?

Aideko "brum-brum-ots" ta turuta deietara,
Gernika urduri jarri zan gora begira
zalantzaz, ziñezgarri ete zan genkusana
egia zuzen-zuzen etozala errira
"Goikoetxearen" ondoren, sekulako andana.

Garratz ta gordin buruganeratu yakun
izumenezko erasoketa-nabarmena;
arma barik eta, guda-oñetatik urrun
bakean bizi zan erri baten ondarena
ekarri eben eriotzazko tristura itun.

Bere joan-etorrizko jardunketa luzez
egazkiñak an ibili ziran bai, jo-ta ke,
gau ongarri, babesgarria etorri zan arte
an ibili ziran gogor eriotza ereñez
ta, nasai asko goitik guri egiten barre.

Ogetabost urteko neure begi argiakaz
ikus nebazan Gernikako inpernuketak;
iñoiz aztuko ez diran sugar erreketak,
neure begiakaz ikusi nebazan begiakaz
egazkin bidez egindako eriotzaketak.

Ainbat ordu latz ondoren, amaitu zanean,
iAi, zelako negargura, zelako naigabea
gaindu zan nire biotzean, illak ikustean
edozein bazterretan ta, alako sutea
aterpe barik gelditutakoen aurrean!

Ildakoakaz erregaituriko sugarrean
Gernikaren biotza goietara edatu zan,
Bizkai osoa lekuko izanik gauean
begiak ezarrita Gernika ibarrean,
illargi-bete antzeko argitasunpean.

Baiña zutunik gelditu zan arbola zarra,
azkatasun oñarri sendoetan, itzal biziz
gerizpetutzeko jatorrizko Lurra,
arbasoengandiko izamen eredugarritz
onetsia dan biotz onekoan ikurra.

Sabin Muniategi



EGUZKI-LORE AGIRRERENA

GERNIKA 50 IN. BASTERRETXEA



SANTIAGO ONAINDIA

IL-KANPAIAK

IL-KANPAIAK

Il-kanpai otsak ditu dardartzen
goiak, uri ta bidea...
Zure eriotza edartzuz dira,
Gernika, gure maitea!
Etsaia gainez izan jatzu gaur,
lerkai pozoituz errea,
eta zu zaitu laga goritan
erio-autsez asca.

Ez-ustez or zan euri-truizua,
zori txarreko ekaitza,
etxe ta kale arras itxirik
su eta metrail zabortza.
giza-negarrak eskatzen dautso
zeru onari laguntza:
goizez alaitsu kanta ebenak
orain garraxi mergatza.

Etsaia ixilka lanean nunbait,
ba gendun orren zurmurra,
baiña nork uste giza-biotza
ete zanik ain ankerra.
Ardura bage dagola zaiña
ibilli oi da lapurra,
era berean etxera jakun
ondamena ta bildurra.

Uri baketsun azoka jaia,
jentez Gernika gainetik;
onik onenez sutzar eskerga,
guda-opari egiñik;
eskeintzaillak ixil etoxan
lerkaiz astunak Laida-tik,
Gernika gainez, egaldakatuz,
ainbat osteria emonik.

Heinkel moltzoa, bira-biraka,
Uri osoa odoltzen.
Erruki-pitsik erakus bage
grina zitalak aunditzen,
orra Gernika zelan daukagun
su ta garretan gantzutzen.
Jauna, erruki; erruki gutaz!
Zatoz bai guri laguntzen!

Ekin zakarrez ikus Junker'ak
txiki ta aundi zanpaka,
ordu bi luzez bonba ta lerkaiz
iguin zuzitzen Gernika.
Teillatuak krak, etxeak beera,
sua, txilio ixurka...
Etsai ankerra!, ez dok oindiño
aserik eure bardaska?

Bonbak lerroan etozan goitik
ater-gabeko eurian,
eriotz-izor, eztanda jausiz,
ozkar ta azantza bizian...
Betarte zuri, dardar biotza
zorotua zirudian
babeski billa ebillen jente
zurbilla, izu aundian.

Be-betik egaz joten etsaiak
igesi joian jentea;
askok itxirik bide egaletan
azkena zan arnasea.
Gernika uria suntsi ez-ezik,
eundaka jente iltea
otsokeri bat dela deritxat
txar-asmo dongaz betea.

Arrakaldurik beera etozan
etxe sendoen murrak,
galda goritan jarririk beingoz
bizitegi, be-barruak.
Burdiñak urtu, dana kiskaldu,
bazterrak ziran sutuak,
barru ta landa, Gernika-n oro
arturik eukan, ai!, suak.

Eundaka illak, ilzori asko,
metaka ziran eriak;
alkarren leian, naimenez gotor,
baturik talde aundiak,
gau zear bere, txinpart artean,
zerbait burutuz guztiak...
Lagun egiñik, arnas-eskinka,
euskaldun Aritz zutiak.

Euskotar Uri agurgarria,
negar-malkotan zakustaz,
abar orritsu oraindik dago
Zugatza ernemin loraz,
Indar ta biotz, loratsu zaitez
urterik luze askotaz,
samiñez bere euskal erria
biza dadin aldi luza.

Aita Onaindia



HIRUGARREN EGUZKI-LOREA

GERNIKA 50 (N. BASTERRETXELA)

TXOMIN PEILLEN

ZUHAITZEKIN ERE EGITEN DIRA UZTAI TA GEZIAK

ZUHAITZEKIN ERE EGITEN DIRA UZTAI TA GEZIAK

Eman da zabalzazu munduan fruitua

Bazuen hamar urte aleman naziek Gernika sutan suntsitu zutela eta behin, zuberotar euskaltzalea zen Sallaberry-k bildutako kantu bildumaren bigarren argitalpena eman zidan Larraine Bentaberriko izebak, euskara ikas nezan; hogeitertan hil zitzaion seme horren liburuan zegoen "Gernikako Arbola" Hala ikasi nuen, zer eta non zegoen zuhaitz hori, baita Eiheralt zurgin zaharrak, "Boga, Boga" batekin batean argitaratu disko zahar batean entzunarazi zigun ere. Parisera sartu ginen oporrak amaiturik, lehen euskal liburu horrekin; gero urrengo igande batean Osaba Allande Dordoragakoa gure ikustera etorri zen igande batean, bazkal aurrean erakutsi nion... eta euskara ikastera bultzatu ninduen osaba horrek... Iparragirreraren bertsoak abesten bazekien, baita gogoz lehen ahapaldia zekian ere... aitak ere bazekien... eta denok batean abesti hori, bazkalarean eta bazkalondoan ematen genuen senide apairu handien karietan, baina Gernikaz egiaren erdia baino ez nekien.

Aitari galdeturik azaldu zidan nola Gernika Bizkaian zegoen eta zuhaitza euskal askatasunen sinboloa, Alemanek hiri ta hiritarrekin batean desagerrarazi nahi izan zutena. Esan zidan nola Franco faszistaren aurka jarri ziren euskaldunak, haren ustez ohereki.

Handik lauzpabost urte, anaiarekin, Pariseko euskal taldeak ezagutu genituen - bretoinen bidez - Bat, eusko jaurlaritzaren ordezkaritzan Pariseko Avenue Marceau etxean biltzen zen, beste bat abertzale ez zena, eta zuberotarren lagunartea "Euskalduna", rue de Grenelle; azken hontan, urtero euskal jai bat egiten

zen, eta ikusgarria "Gernikako arbola" abestuz hasten, kantari taldeak eta entzule askok zutik ematen zutela: hau zen Iparraldekoentzat euskal himnoa. Ordezkaritzan ordea, Jon Mirande paristarrarekin ta Andima Ibanagabeitiarekin. Sabino Arana, Euskadi, Abertzale hitzak ikasi nituen eta ez hitzak bakarrik, baina "Eusko gudariak" abestia izan ezik, Iparragirreraren abestiak eta bereziki haren melodia beti bihotz berogarri izan zaizkit; berriz, bere "zar, sendo, zindo" hitzen ederra gatik Sabinorenak hotzik uzten nau. Hegoaldean Gernikako zuhaitzak mintzo ta ez dakit zenbat bider esan didaten karloszaleen alderdiaren jabetasuna dela? Baina azken horiek abesten ote dakite eta nola izan zitekean Iparragirre abertzale gure moduan, bere garaia seme zelarik? Guretzat, Iparraldean euskal nazioren abestia da abesti hau, ta beharbada ikurriñak haina esangura du.

Egia da, zuhaitz frutu sakabanatzaile horren aipamenak ez duela abertzaletasunaren osotasuna betetzen, baina lehen karlistalditik hasirik, ez da gure errua, hispanitarrek gure artean dagoen arte eta zuloa, leize sakona beren ulertezinekin barnatu badute eta zer esanik ez Frantzia harro ta erdirakoiarekin ditugun harremanak usteldu... Guttiengo baten askatasunak balore bat egiten jakin dugu, eta bakea - nahi ala ez - ez dugu zer nahi ordainsaritan salduko. Eman ta zabalzazu bai, baina dena ez.

Eta gure Iparragirrek baldin ez bazekine, olerkari askoren moduan susmoa izan du Gernikako aritza sakratua baldin bazen ez zela, oraingoa, baina mila urte baino gehiago zeukala sinboloak ez zekien, garai hartan inork ez zekialako erromatar garai-ko pireneotar jainko-harri batean agertzen zela "Aris" jainkoari omenaldia, bai, bedeinkatua izan baino lehen gure arbaso paganuek jauretsia izan baitzen zuhaitza.

Erortzeko arriskua omen zuen zuhaitzak, ez zuen Iparragirrek hobeki abesten ahal, ezin zuen hobeto igartu Gernikaz etsaiek egingo zutela baina horrekin giogu, egur ta zur horrekin, uztai ta geziak egiten jakin dugu eta antziñateko esareraren ihakinez diokegu "Bake zuhaitza nahi baduk, borroka egurrak gertutu behar dituk."

Txomin Peillen

JOSE MARIA UNANUE

GAU GORRIA

GAU GORRIA

Atzeritik etorri ziren
infernuko gorriko hegalaria.

Oskorri okerra zabalduz
zuhaitzen belztasun gainerik.
(*Ez beldurtu, Josetxo*)

Belardi gainean antxintxiketan
burdinezko arantzen aurrean.
(*Eta zenbat geratu, Josetxo*)

Lurrak ikara oinetan
aienak lau haizetan.
(*Entzun, ez ikaratu Josetxo*)

Zelaia mitxoletaz ereina
gorputzez agudo betea.
(*Ez zenuen ikusi, maitia*)

Tripak beteta balute lez
supositorio higuigarri jaurtikiz.
(*Trumoiak beldurtzen bazaitu
nola ez ezlandak*)

Hitz sakratua Espainetan zeramatenek
bidali zizkiguten zakur hertzainak.

Ardi gorri, zuri, beltz; denak
hesian sartzeko asmoz.
(*Gorriak, gorriak izan dira!*)
(*pentsa erazi zizuten, Josetxo*)

Baina gezurra koadro batean
margotuta geratu zen.

Arbola ere hantxe
geldi geratu zen
ekaitza baretu arte
baitarako zioen:

Makina haize beltz
jasan dut oraindino
sustarrak sakonak ditut
ez naute botako.

Eraman deixala hostoak
udaberri erdian
ni berriz loratuko naiz
hurrengo urtean.

Jose Mari Unanue



LAUGARREN EGUZKI-LOREA

GERNKA 90 IN. EASTERRETXEA

Gernika, hasieran, bere oriotzape bat zen. Ez gehiago, ez gutxiago. Gutxitan aipatzen zuen gerra garaia. Baina noizean behin, gaurko telefilme amerikarretan Vietnamen egondako soldadoei gertatzen zaien bezala, zerbaitek egiten zion ihes. Ez zuen ahaztuarena egiten, ixildu egiten zen. Orduan ez zeuden oraindik modan psikoterapeutak.

Gerra lehertu zenean, bere lekua lortzeko zorian zegoen. Askok jaiotzetik duena eskuratzeko, 35 urte. Halere, garaiz zebilen oraindik: berrogei urte betetzerako, aita prospero bat izango zen.

Hamar urtez atzeratuko zen helburua, gerra galduaren madarikazioz.

Handik aurrera oso gutxitan aipatuko zuen gerra eta joera hori areagotu egingo zen urteen poderioz.

Berari entzun nion Gernikakoa lehenengo aldiz eta, seguru asko, Gernika hitza bera ere. Kuneta bat, ahozpez, larruzko zamarra buruaren gainean, bonbaketarik famatuenaren barruan.

Oraintxe entzun dudan bertsio berri batean ez da kunetarik aipatzen. Goazen Gernikara, zerbait gertatzen ari da, esaten omen zion txoferrari. Agian, Gernikara heldutakoan etorri zen kunetarena.

Dena den, Gernikakoa ez zen oroitzape bakarra, ezta faborittoa ere. Bazegoen gehiagotan kontatutakorik. Kasuilarena, adibidez. Parroki baten hondakinetatik kasuila bat salbatu omen zuen, kepeilauarentzat. Politena, urdin argia, udako zeruaren

kolorekoa. Gero, apaizak esan omen zion urtean bitan bakarrik erabili zitekeela, kasuila guztien artean ezin zuela okerragorik aukeratu. Ia bi mila meza bizkarrean eta hori jakin ez.

Urte pila bat pasa ondoren, gaztea nintzen eta ezjakina, baina dagoeneko ezagutu nuen nire kabuz Gernikaren esanahia, Picasso eta guzti, bere bizitzarekiko maitasuna berpiztu nahi izan nuen batean, bera 1937. eko apirilaren 26.ean hil zela esan zidan, Gernikan. Harrez gero, sobrebizitu, besterik ez. Metaforak ez zuen frogabiderik, baina betidanik maite izan zituen esaldi solemneak eta horrek esplikatzeko du ponposidadea.

Arantxa Urretabizkaia

Liburu hau, Gernikako Musikazale Gazteen Elkartek Gernika-Lumoko Udalaren babespean argitaratua, Abenduak 4 an aurkeztu zan Gernikan libertateetako Hiria bonbardatu zuteneko 50. Urteurrena ospatzen zen 1987.ean.